

AURREIKUSITAKO AGENDA

09:30etan. Harrera topagunean.

09:45ean. Egin beharreko jardueraren inguruko sarrera, Lurgaia Fundazioaren aurkezpena eta kontserbazio-proiektuari buruzko hitzaldi laburra.

10:00. Ibilbidea, jardueraren tokiraino. Bi talde egingo dira, eta landaketaren eta espezie exotiko inbaditzaileak (EEI) ezabatzearen artean txandakatuko dira.

Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea. Landatzeko argibideak. Landatzeko teknika erakustea. Tokia hautatzea, eskuz zuloak egitea, landarera egoki moldatzea, estaltzea eta seinaleztatzea. Eskularruak, erremintak eta landareak banatzea. Landatzeko taldetan banatzea.

Espezie exotiko inbaditzaileak (EEI) ezabatzea. Deskribapen laburra eta horiek identifikatzeko eta modu seguruan ezabatzeko xehetasunak. Eskularruak eta erremintak banatzea.

13:30 (inguruan). Jarduera amaiera.

Gehienez ere 100 parte-hartzaile.

Adina: Boluntariotzaren legeak ez du aurreikusten 12 urtetik beherakoak boluntario gisa arituko direnik. Hala ere, pertsona heldu batekin joan daitezke, eta pertsona hori izango da arduradun.

JARDUNALDIRAKO ZENBAIT AHOLKU

URA: eraman zure kantinplora beteta, erabilera bakarreko plastikoak saihesteko.

BAZKARIA: eraman zerbait goiz erdian jateko: fruta, fruitu lehorrak...

ARROPA: eroso, zikintzeko moduko eta zira, badaezpada ere. Euria egiten badu, aldatzeko arropa.

OINETAKOAK: mendiko edo uretako botak.

Gainerako materiala gure kontu.